

Analfabeto digitalak

2020ko apirilak 1
Haizea Barcenilla / Berria

Unibertsitateko lehenengo mailan ikasleei irakasten dizkiedan gauzen artean *Xuxen* zuzentzailea instalatzea eta Word artxiboetatik PDF-ak egitea daude. Ikasturtea hasterakoan zein programa eta *online* baliabide erabiltzen dakiten galdetzen diegu eta erantzunak triste xamarrak izaten dira: oinarrian, testu prozesatzaileak, Power Point eta sare sozialak.

Nire lankide batzuk harritu egiten dira halakoak entzutean, haiek ere bideo bat egiten edo Wikipedia editatzen ez dakiten arren. «Natibo digitalak dira», esaten dute. Ahaztu egiten zaigu gu ere idazkerak antolatu eta menperatutako mundu batean jaio ginela, baina, hala ere, irakurtzen eta idazten ikasi behar izan genuela. Urtez eta urtez, hain zuzen, egon ginen zeregin horietan trebatzen, horren sofistikuak diren eraikuntza sozialak ez baitira berez norberaren buruan hazten, eta are gutxiago haiekiko ikuspegi kritikoa.

Online irakaskuntzak errealitate horrekin jarri gaitu aurrez aurre: teknologien garaian bizi gara baina ikasleek zein irakasleok ez ditugu ondo ulertzen, ezta menperatzen ere. Gure mundua hain da konplexua, ezen botere estrukturalak bistaz galtzen ditugun aise. Azken produktuak kontsumitzen ditugu produktuak direla ohartu gabe; tresnak gainazaletik erabiltzen ditugu, jakin gabe gurera nola ekarri, eta horien erabilerak inplikatzeko duena ezin ulertuta. Wikipedia, jakintza librea zabaltzeko proiektu kolektiboa, eta Facebook, gure datuak saltzeko baimena duen megaenpresa kapitalista, askorentzat gauza bera dira: *online* tresna bat.

Esaterako, asteburuan hainbat lagunek asaldura adierazi dute geolokalizatu gaitzaketa esaten duen Espainiar Gobernuaren dekretu berri baten aurrean. Dirudienez, koronabirusa duten pertsonak kokatzea helburu duen aplikazio bat jaitsiz gero, horrek geolokalizatu egingo gaitu, gure mugimenduen berri emanez. Beharrezkoa da bizi garen autoritarismo une honetan eskubideen urraketari adi egotea, baina ez legoke gaizki unea aprobeztatu eta, atzera begira ere, beste botere esturturekin halako kritikotasun maila erabili ote dugun pentsatzea. Izan ere, estatuak ez du gu geolokalizatzeko beharrik: Google Mapsek, Bizkaibuseko aplikazioak, Amazonek, Tinderrek eta beste askok une oro gaituzte kokatuta. Eta gure datuak edonori saltzeko baimena eman diegu, gainera. Ongi etorriak panoptiko digitalera.

Une hau erronka harrigarria izaten ari da esparru askorentzat; besteak beste, egun batetik bestera digitalera pasatu den hezkuntzaren arloarentzat. Baina egoeraren aurrean galdera okerrak planteatzen ari garelakoan nago: etorkizunari begira, kontua ez da nola irakatsi *online*, baizik eta nola eman gure mundua kontrolatzen duten erraldoien gaineko irakaskuntza kritikoa eta informatua bere menpean biziko garen gizaki guztioi. Argi baitago gero eta gehiago direla *natibo digitalak*, baina gero eta ugariagoak garelako analfabeto digitalak.